| UDALEKO AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUA | NORMA MUNICIPAL DE EJECUCION PRESUPUESTARIA |
|---|---|
| **1. artikulua.- Aurrekontu Orokorraren edukia** | **Artículo 1.- Contenido del Presupuesto General** |
| Udal sektore publikoaren 2021ko ekitaldiaren Aurrekontu Orokorra, gastu eta sarrera bateratuak 17.171.284,00 euro dituenak, honako hauek osatuko dute: | El Presupuesto General del Sector Público Municipal del ejercicio 2021, cuyo importe consolidado asciende a un importe -igual en gastos e ingresos- de 17.171.284,00 euros, queda integrado por los siguientes: |
| a) Udalaren Aurrekontua, 15.245.000,00 euroko gastu eta sarrerak dituena. | a) Presupuesto del Ayuntamiento, cuyo estado de gastos, al igual que el de los ingresos, asciende a 15.245.000,00 euros. |
| b) Azkoitia Lantzen, S.A. erakunde autonomoaren Aurrekontua, 1.862.284,00 euroko gastu eta sarrerak dituena. | b) Presupuesto del Organismo Autónomo Azkoitia Lantzen, S.A. cuyo estado de gastos, al igual que el de los ingresos, asciende a 1.862.284,00 euros. |
| c) Zubi Aurre Udal Kiroldegia Fundazioa erakunde autonomoaren Aurrekontua, 896.000,00 euroko gastu eta sarrerak dituena. | c) Presupuesto del Instituto Zubiaurre Elkargunea, cuyo estado de gastos, al igual que el de los ingresos, asciende a 896.000,00 euros. |
| d) San Jose Egoitza Fundazioa erakunde autonomoaren Aurrekontua, 68.300,00 euroko gastu eta sarrerak dituena. | d) Presupuesto del Organismo Autónomo Fundación Residencia San José, cuyo estado de gastos, al igual que el de ingresos, asciende a 68.300,00 Euros. |
| **2. artikulua.- Berme eskaintzaren mugak** | **Artículo 2.- Límite de prestación de garantías** |
| Erakunde autonomoek ezingo diete hirugarrengoei abalik eman, ez eta edozein izaeratako bermerik ere. | Los Organismos Autónomos no podrán conceder avales ni concertar garantías de cualquier naturaleza ante terceros. |
| **3. artikulua.- Zorpetze muga** | **Artículo 3.- Límite de endeudamiento** |

Erakunde autonomoek beren aurrekontuko gastuak finantzatzeko ezingo dute kreditu eragiketarik hitzartu. Halakorik behar izanez gero, Udalak emandako transferentziek orekatu beharko dute haien aurrekontua.

Los Organismos Autónomos no podrán recurrir a operaciones de crédito para financiar los gastos de su Presupuesto. Dicho Presupuesto se equilibrará, en su caso, mediante transferencias procedentes del Ayuntamiento.

2021eko ekitaldiaren barruan udal sektore publikoa osatzen duten entitateek urtebetetik beherako zorpetze eragiketak hitzar ditzakete, Diruzaintzan sor daitezkeen unean uneko premiak finantzatzeko. Dena dela, Udalean eta erakunde autonomoetan eragiketa horiek hitzartu ahal izateko, Udalbatzarrak onartu beharko ditu aldez aurretik.

Durante el ejercicio de 2021 las Entidades integrantes del Sector Público Municipal podrán concertar operaciones de endeudamiento por plazo inferior a un año para financiar desfases temporales de Tesorería. En el caso del Ayuntamiento y de sus Organismos Autónomos, la concertación de dichas operaciones requerirá previo acuerdo del Pleno de la Corporación.

## 4. artikulua.- Kredituen araudi orokorra

## Artículo 4.- Régimen general de los créditos

### *4.1.- Kredituen lotura juridikoen mailak*

### *4.1.- Niveles de vinculación jurídica de los créditos*

Gastuetarako kredituak Aurrekontuan edota horren aldaketetan berariaz onetsi den helbururako erabili ahal izango dira soilik.

Los créditos para gastos se destinarán exclusivamente a la finalidad específica para la cual hayan sido aprobados en el Presupuesto y sus modificaciones.

Udalaren eta erakunde autonomoen aurrekontuan onetsitako kredituak mugatzaileak eta lotesleak izango dira, honako lotura-mailaren arabera:

Los créditos autorizados en el Presupuesto del Ayuntamiento y de los Organismos Autónomos tendrán carácter limitativo y vinculante, de acuerdo con el siguiente nivel de vinculación:

| | |
|---|---|
| * Programa taldea eta kontzeptua, transferentzietan -arruntak nahiz kapitalezkoak-, aktibo finantzarioetan eta inbertsio errealetan | * Grupo de Programa y concepto, en los gastos relativos a transferencias corrientes y de capital, activos financieros e Inversiones reales. |
| * Programa taldea eta kapitulua, ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketetan, interesetan eta pasibo finantzarioetan | * Grupo de Programa, y Capítulo en los gastos relativos a compras de bienes corrientes y servicios, intereses y pasivos financieros. |
| * Kapitulua, pertsonalaren gastuetan. | * Capítulo, en los gastos relativos a gastos de personal. |
| **5 .artikulua.- Kreditu aldaketaren erregimenari buruzko arauak** | **Artículo 5.- Normativa aplicable al régimen de modificaciones de créditos** |
| **5.1.-** Aurrekontu kredituak aldatu ahal izango dira Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, eta Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arau honetako xedapenak jarraiki. | **5.1.-** Los créditos presupuestarios podrán ser modificados de conformidad con lo establecido en la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales, así como por las especificaciones contenidas en la presente Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria. |
| Lehendakaria izango da kreditu gehigarriak onartzeko eskumena duen organoa, baldin kreditu horien urteko zenbateko metatua aurrekontuko hasierako kredituen %5 baino gutxiago bada. | El Órgano competente para la aprobación de los créditos adicionales cuyo importe acumulado anual no supere el 5 por ciento de los créditos iniciales del presupuesto será el Presidente. |
| Ez da kreditu aldaketatzat hartuko baizik eta kontabilitate moldaera izango da lotura juridikoko maila berdineko poltsa baten barruan kontusail berria sortzea, beti ere aldaketa kuantitatiborik ez duenean suposatzen eta egindako gastu motaren informazio gehiago ematen duenean. | No se considerará modificación de créditos sino un ajuste contable, la creación de una partida presupuestaria dentro de una bolsa de vinculación jurídica que sin suponer variación cuantitativa de la misma proporciona una mayor información sobre el tipo de gasto realizado. |

***5.2.- Kreditu zabalgarriak***

Gastuen Aurrekontuko honako partidak hauek zabalgarriak izango dira, kreditu bakoitzarentzat izendatutako finantzaketaren arabera:

***5.2.- Créditos ampliable***

Las siguientes partidas del Presupuesto de gastos del Ayuntamiento tienen el carácter de ampliables en función de la financiación que para cada uno de ellos se asigna:

| **KONTZEPTUA / CONCEPTO** | **GASTUEN PARTIDA / PARTIDA DE GASTOS** | **SARREREN PARTIDA / PARTIDA DE INGRESOS** | **EUROAK** |
|---|---|---|---|
| Gizarte larrialdietarako dirulaguntza | 1.4000.480.231.30.01 | 2.1000.410.000.00.07 | 104.500,00 |
| Langileentzako aurrerakinak | 1.1000.823.920.00.01 | 2.1000.833.000.00.01 | 6.000,00 |
| Exekuzio subsidiarioak | 1.6000.823.150.00.02 | 2.1000.823.000.00.02 | 6.000,00 |

Elkargune Zubiaurre Institutoko Aurrekontuko honako partidak hauek zabalgarriak izango dira, kreditu bakoitzarentzat izendatutako finantzaketaren arabera:

Las siguientes partidas del Presupuesto de gastos del Instituto Elkargune tienen el carácter de ampliables en función de la financiación que para cada uno de ellos se asigna:

| **KONTZEPTUA / CONCEPTO** | **GASTUEN PARTIDA / PARTIDA DE GASTOS** | **SARREREN PARTIDA / PARTIDA DE INGRESOS** | **EUROAK** |
|---|---|---|---|
| Ura/ suministro agua | 0000.221.342.00.02 | 0000.310.340.00.09 | 10.000,00 |

| | |
|---|---|
| Uste baino diru-eskubide gehiago onartzeagatik zabalgarriak diren kredituak kreditu gaikuntzaren erregimenaren bidez finantzatuko dira | Los créditos ampliables en función del reconocimiento de mayores derechos se financiarán mediante el régimen de habilitación de créditos. |
| Kreditu transferentzien erregimenaren bidez finantzatuko dira kreditu globala erabiliz nahiz soberakotzat jotako kredituetatik eginiko transferentziak erabiliz zabal daitezkeen kredituak. | Los créditos ampliables en función bien de la disposición del crédito global, bien de transferencias procedentes de créditos considerados excedentarios se financiarán mediante el régimen de transferencias de créditos. |
| **6.artikulua.- Aurrekontua gauzatzeko jardunbidea arautzeko arauak** | **Artículo 6.- Normas de regulación del procedimiento de ejecución presupuestaria** |
| ***6.1.- Gastuen Aurrekontua gauzatzeko faseak*** | ***6.1.- Fases de la ejecución del Presupuesto de gastos*** |
| Gastuen aurrekontuaren kudeaketa honako fase hauetan gauzatuko da: | La gestión del Presupuesto de gastos se realizará en las siguientes fases: |
| a) Gastuaren baimena. | a) Autorización del gasto. |
| b) Gastuaren erabilera | b) Disposición del gasto. |
| c) Obligazioaren onarpena. | c) Reconocimiento de la obligación. |
| d) Ordainketaren agindua. | d) Ordenación del pago. |
| e) Ordainketa gauzatzea. | e) Realización material del pago. |
| ***6.2.- Gastuen baimena eta erabilera*** | ***6.2.- Autorización y disposición de gastos*** |
| Gastuen baimenean eta erabileran eskumen arau hauek beteko dira: | La autorización y disposición de gastos se regirá por el siguiente régimen de competencias: |
| a)Udalbatzarraren eskumena izango da 1.373.386,00 eurotik gorako gastuena, | a) Será competencia del Pleno de la Entidad Local la autorización y disposición de aquellos gastos cuyo importe exceda de 1.373.386,00. |

euros.

b)Lehendakariaren eskumena izango da 1.373.386,00 eurotik beherako gastuen baimena eta erabilera.

b) Será competencia del Presidente o personal en la que éste delegue la autorización y disposición de los gastos cuyo importe sea inferior a 1.373.386 euros.

Konpromisozko kredituen baimena eta erabilera bat etorriko da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen II. Xedapen Gehigarrian arautzen duenarekin.

La autorización y disposición de los Créditos de Compromiso se regulará de acuerdo a lo dispuesto en la disposición adicional segunda de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

***6.3.- Aurrekontua gauzatzeko faseak metatzea***

**6*.3.- Acumulación de fases de ejecución presupuestaria***

Aurrekontuko gastuen izaera nahiz ekonomiaren eta arintasun administratiboaren irizpidea kontuan hartuz, haiek gauzatzeko faseak ekintza administratibo bakar batean meta daitezke, honako kasuetan eta bertan aipatzen diren mugen barne:

Las fases de ejecución del Presupuesto de gastos podrán acumularse en un solo acto administrativo, atendiendo a la naturaleza de los mismos y al criterio de economía y agilidad administrativa, en los siguientes supuestos y con las limitaciones indicadas:

* Gastuen baimena eta erabilera udal entitateak legez hartutako konpromisoetatik badatoz eta burutu beharreko zerbitzu, obra edota horniduraren zenbatekoa zehaztasunez ezagutzen bada: berez berritzen diren aldi baterako kontratuak, errentamenduak, maileguen interesak eta amortizazioa eta esleipen zuzeneko erosketak.

* Gastuaren baimena, erabilera eta obligazio-onarpena, eragiketa arrunten gastuetan, kontratazio prozedurari atxikiak ez direnean eta obligazioaren exigigarritasuna bat-batekoa denean:, dietak eta joan-etorriak, bestelako

* Autorización y disposición de aquellos gastos derivados de compromisos legalmente adquiridos por la Entidad Local en que se conozca ciertamente el coste del servicio, obra o suministro a realizar: contratos de tracto sucesivo, arrendamientos, intereses y amortización de préstamos y adquisiciones por contratación directa.

* Autorización, disposición y reconocimiento de obligación correspondiente a gastos por operaciones corrientes, no sujetas a procedimiento de contratación, en que la exigibilidad de la obligación sea inmediata:

gastu finantzarioak eta langileei egindako aurrerakinak. Zergak eta kontribuzioak. Iragarkiak eta harpidetzak. Argindarra eta gasaren hornikuntza. Multzo honetan sartzen dira, halaber, langileen hileroko nominen ordainketak eta udal entitatearen kargura diren Gizarte Segurantzaren kuotak ere.

dietas y gastos de locomoción, otros gastos financieros y anticipos al personal. Contribuciones e impuestos. Anuncios y suscripciones. Suministro de electricidad y gas. También se incluirán en este grupo el abono de las nóminas mensuales al personal y las cuotas de Seguridad Social a cargo de la Entidad Local.

Aurrekontua gauzatzeko faseak metatu ahal izateko, nahitaezkoa izango da betiere, erabakia hartuko duen organoak berezko eskumenak, eskuordetutakoak nahiz deskonzentratutakoak izatea ebazpenaren barruan sartzen diren fase bakoitza eta guztiak erabakitzeko.

En todo caso, para que proceda la acumulación de las distintas fases de ejecución presupuestaria será requisito imprescindible que el Órgano que adopte la decisión tenga competencia originaria, delegada o desconcentrada para acordar todas y cada una de las fases que en las resoluciones se incluyan.

***6.4.- Obligazioaren onarpena:***

***6.4.- Reconocimiento de obligaciones:***

Lehendakariak onartuko ditu legez eskuratutako gastu konpromisoetatik sortutako obligazioak.

Corresponderá al Presidente el reconocimiento de las obligaciones derivadas de gastos legalmente adquiridos.

Obligazioen onarpena oinarritzeko agiritzat kontu-hartzailearen txostena daraman faktura zerrenda har daiteke.

El reconocimiento de las obligaciones se podrá soportar documentalmente en una relación de facturas con informe de la Interventora.

Aldez aurretik, zerbitzuburuak diligentzia bana egin beharko du faktura bakoitzean, alorreko ordezkariaren oniritzia daramana. Diligentzia honek ondorengo atalak ziurtatzen ditu:

Con carácter previo, el o la responsable del Servicio correspondiente deberá efectuar, sobre cada factura, una diligencia, con el visto bueno del Delegado o Delegada de Área correspondiente. En dicha diligencia se hará constar:

* Materiala, obra edota hornidura hartu izanaren adierazpena eta harekiko adostasuna

* Zein aurrekontu partidatan eta zein kate

* Acuse de recibo del material, obra o suministro y su conformidad con el mismo

* Partida presupuestaria a la que se impute el

bururen erreferentzipean kontabilizatu behar den.

gasto, así como referencia del contraído.

* Udal Aurrekontua exekutatzeko Udal arauak eta Sektore publikoko kontratuen legeak diotena betetzen duela.

* Que cumple lo dispuesto por la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria y la Ley reguladora de los Contratos del Sector Público.

Atal honetan aipaturiko diligentzia sinaduraren bitartez gauzatuko da faktura bakoitzean , egoera bereziak salbu.

La diligencia mencionada en el presente apartado se realizará mediante la firma de cada factura, salvo en casos especiales, en los que se referirán las circunstancias especiales.

Zerbitzubururik edo arduradun teknikorik ez duten sailen kasuan, eta gobernu organoen kontu-sailen kargura egiten diren gastuan kasuan ere, arduradun politikoaren sinadura izango da materiala edo lana behar bezala jaso izanaren egiaztagiri.

En el caso de las Áreas en las que no exista jefe de servicio o técnico responsable, así como en el caso de los gastos efectuados con cargo a las partidas de los órganos de gobierno, la firma del responsable político certificará que el gasto está debidamente prestado.

**6.5.- Ordainketaren agindua**

**6.5*.- Ordenación del pago***

Udal entitateko lehendakariaren esku dago aurrez onartutako obligazioen ordainketa agintzea.

La ordenación del pago de aquellas obligaciones previamente reconocidas corresponderá al Presidente de la Entidad Local.

**6.6.-Kontratu txikiak:**

**6.6.- Contratos menores:**

**6.6.1.- Kontratu txikietan aurrekontu eskaerak:**

**6.6.1.- Solicitud de presupuestos en los contratos menores:**

Norgehiagoka printzipioarekin bat eginez, Kontratazio organoak 6.000,00 €tik gorako kontratu txikietan, BEZa aparte, gutxienez, hiru aurrekontu eskatuko ditu eta espedientean egiaztatuta geratu beharko da.

De acuerdo con el principio de competencia, el órgano de contratación solicitará en los contratos menores que superen 6.000,00 €, IVA excluido, al menos, tres presupuestos, debiendo quedar ello suficientemente acreditado en el expediente.

Aurrekontu eskaria egindako enpresek ez balukete erantzungo edo uko egingo baliokete

Si las empresas a las que se les hubiere

egindako eskariari, ez da beharrezkoa izango aurrekontu gehiago eskatzea.

Jasotako aurrekontuak eta hautatzeko erabilitako irizpidearen justifikazioa espedientearen parte izango da.

Hau guztia, posible ez denean, espedientean jaso beharko da justifikazio arrazoitua.

**6.6.2.- kontratu txikien prozedura:**

Dagokion Arduradun teknikoak proposatuta emango zaio hasiera gastuak baimentzeko espedienteari. Gastua 300 €tik gorakoa eta 6.000 €tik beherakoa bada,BEZa kanpo, Sarekoko "eskaria"aplikazioaren bitartez gastuaren erreserba egingo du eta kontratazio organoak oniritzia emango dio kontratu txikiaren espedientea baimenduz.

Gastua 6.000 €-tik gorakoa bada, BEZa aparte , beharrezkoa dela justifikatuko duen proposamena jaso beharko du espedienteak; obren kasuan proiektua ere aurkeztu beharko da . Esleipen dekretuaren bitartez kontratazio organoak oniritzia emango dio, kontratu txikiaren espedientea baimenduz. Behin onartuta, proposamena egin duen teknikariak Sarekoko "eskaria" aplikazioan gastuaren erreserba egingo du .

solicitado presupuesto declinasen la oferta o no respondiesen al requerimiento, no será necesario solicitar más presupuestos.

Las ofertas recibidas así como la justificación de la seleccionada formarán parte del expediente.

De no ser posible lo anterior, deberá incorporarse en el expediente justificación motivada de tal extremo.

**6.6.2.- Procedimiento de los contratos menores:**

El expediente de autorización de gastos se iniciará a propuesta del responsable técnico correspondiente. Todo gasto, excluido IVA, cuyo importe exceda de 300€ y no supere 6.000 € se consignará su importe realizándose una reserva de crédito en Sareko mediante la aplicación "pedidos" y el órgano de contratación le dará su visto bueno aprobando el expediente de contrato menor.

Si el gasto excede de 6.000€ , IVA excluido, dicho expediente contendrá propuesta en la que se justifique la necesidad de dicho gasto, proyecto en el caso de que se trate de una obra. El órgano de contratación mediante el decreto de adjudicación le dará su visto bueno aprobando el expediente de contrato menor. Una vez aprobado, el técnico que ha realizado la propuesta consignará su importe realizándose una reserva de crédito en Sareko mediante la aplicación "pedidos"

**6.6.3.- Kutxa finkoko aurrerakin sistema**

Kontratu txikitzat har daitezkeen 300€ (BEZa aparte) arteko ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak, balio txikiko jarduerak direlako, planifikatzeko zailak direnak eta urgentziazko arreta behar dutenak, hala nola konponketak, jendeari irekitako establezimenduetako hornidurak, material inbentariaezina eta antzekoak, ondorengo baldintzak beteta modu laburtuan izapidetu ahal izango dira, kutxa finkoko aurrerakin baten antzera, fakturaren itzulketa gisa, eskaintza bat aldez aurretik onartu beharrik gabe:

1.-Jardueraren objektu osoa ez da inola ere 300 €-tik (BEZa aparte) gorakoa izango. Ez dira onartuko objektu beraren zatiketak egitea 300€ baino gutxiagoko hainbat ziurtagiri erabiliz. Jarduera zatikatzen bada dagokion erantzukizuna izango du Kontratazio-organoak.

2.-Oro har, ez da beharrezkoa izango hiru aurrekontu eskatzea, baina bai prestazioaren merkatuko prezioak, jarduketaren eraginkortasuna, espedientea izapidetzeko kostua eta lor dezakeen errentagarritasun ekonomikoa baloratzea.

3.-Fakturak gastu independentearen

**6.6.3.- Sistema de anticipo de caja fija**

Los gastos corrientes en bienes y servicios hasta el importe de 300€ (IVA excluído) que tengan la consideración de contratos menores, por tratarse de actuaciones de escaso valor, no planificables y de atención urgente, tales como reparaciones, suministros en establecimientos abiertos al público, material no inventariable y similares, podrán ser tramitados del siguiente modo abreviado, similar al que se utilizaría si se gestionaran dentro de un anticipo de caja fija, como reembolso de factura, sin necesidad en todo caso de aceptación previa de una oferta:

1.-El objeto completo de la actuación no superará en ningún caso los 300€ (IVA excluído). Será responsabilidad del órgano de contratación que no se fraccionen las actuaciones en varios justificantes de importe inferior a 300€.

2.- Como regla general, la solicitud de tres presupuestos en relación con este tipo de actuaciones de escasa cuantía no será necesaria, siendo preciso que se valore el conocimiento de los precios de mercado de la prestación a contratar, la eficacia de la actuación, el coste de tramitación del expediente y la rentabilidad económica que puede conseguir.

3.- Las facturas se registrarán como el resto de

onarpena duten beste jarduera batzuei dagozkien gainerako fakturak bezala erregistratuko dira.

las que correspondan a otras actuaciones con aprobación de gasto independiente.

4.-Publizitate-ondorioetarako, gastu txikien faktura horiek kutxa finkoko aurrerakin-sistema baten bidez izapidetutakoen berdinak izango dira, oinarri honetan jasotakoa Udal honetan izan daitekeenaren antzekoena delako.

4.-Se dará un tratamiento a efectos de publicidad a estas facturas de gastos menores idéntico al que hubieran recibido las tramitadas con un sistema de anticipo de caja fija, por considerarse el recogido en esta base lo más similar a ese que puede existir en esta corporación.

**7. artikulua.- Zuritu beharreko ordainketak**

**Artículo 7.- Pagos a justificar**

Ordainketa agindu guztiak agiri bidez justifikatzeko printzipioaren salbuespen gisa, eta hurrengo artikuluan araututako kutxa finkoko aurrerakinen zirkuitu bidez egitea ezinezkoa denean, “zuritu beharreko” izaerako ordainketa aginduak egin ahal izango dira, aurrekontu partiden kargura eta muga hauen barne:

Como excepción al principio de justificación documental de toda orden de pago que se expida, podrán emitirse mandamientos con el carácter de "a justificar" con cargo a las siguientes partidas presupuestarias y con los límites que se señalan.

| UDALEKO AURREKONTUA | | | |
|---|---|---|---|
| **PARTIDA** | **IZENA / NOMBRE** | **JASOTZAILEA / PERCEPTOR** | **MUGA / LÍMITE (€)** |
| 3000.226.338.00.01 | Andremaixek | JESÚS ARRIZABALAGA | 15.000,00 |
| 3000.226.338.00.02 | San Andresak | JESÚS ARRIZABALAGA | 8.000,00 |
| 3000.226.338.00.00 | Zenbait jai | JESÚS ARRIZABALAGA | 5.000,00 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 3100.226.334.00000* | Musika ekitaldiak | JESÚS ARRIZABALAGA | 5.000,00* |
| 8000.226.431.10.06 | Azoka ekitaldiak | KONTXI LARRAÑAGA | 4.000,00 |
| 4000.226.231.70.01 | Zerbitzu giza hezitzailea eta psiko soziala ekintzak | IÑAKI LASA | 6.000,00 |
| 4000.480.231.30.03 | Hainbat dirulaguntza | IÑAKI LASA | 6.000,00 |
| 6100.221.132.00.99 | Segurtasuna, hainbat materialen erosketa | XABIER ARTOLA | 1.000,00 |

*3100.226.334.00.00 partida honi atxikiturik, Jesus Arrizabalagak, abenduan, 500 € gehiengoz jaso ditzake jaiotza eramangarrien lehiaketako ordainketak egiteko, nahiz eta San Andres jaietako gastuak zuritu gabe eduki une horretan.

| ZUBIAURRE ELKARGUNE INSTITUTOAREN AURREKONTUA | | | |
|---|---|---|---|
| **PARTIDA** | **IZENA / NOMBRE** | **JASOTZAILEA / PERCEPTOR** | **MUGA / LÍMITE (€)** |
| 1000.227.337.20.01 | Gazteria zerbitzua | PEIO LARRAÑAGA | 2.000,00 |
| 1000.226.337.20.02 | Gabonetako ekintzak | PEIO LARRAÑAGA | 1.500,00 |
| 1000.227.337.20.06 | Psikomotrizitate eremua - Jokuen berritzea eta LH4-LH6rako jokuen erosketa | PEIO LARRAÑAGA | 500,00 |
| 1000.226.337.20.05 | HNG (Haur, nerabe eta gazteekin ekintzak) | PEIO LARRAÑAGA | 2.000,00 |
| 1000.214.337.20.02 | Tailerretarako ikastaro ezberdinetarako materialaren horniketa | PEIO LARRAÑAGA | 600 |

| SAN JOSE EGOITZAREN AURREKONTUA | | | |
|---|---|---|---|
| **PARTIDA** | **IZENA / NOMBRE** | **JASOTZAILEA / PERCEPTOR** | **MUGA / LÍMITE (€)** |
| 1.0000.226.231.90.06 | Gizarte eta kultur ekintzak | IÑAKI LASA | 500 |

Egindako ordainketak dirua jaso eta gehienez hiru hilabetera zuritu beharko dira.

La justificación de los fondos librados deberá efectuarse en el plazo máximo de tres meses desde la percepción de los mismos.

Zuritu beharreko ordainketa aginduak egin ahal izateko, nahitaezkoa izango da jasotzaileak aurrez jaso eta artean zuritu gabeko funtsik ez izatea.

Será requisito imprescindible para expedir mandamientos a justificar que el perceptor no tenga fondos librados anteriormente pendientes de justificación.

**8. artikulua.- Talde politikoen diru-izendapenak. Hautatuen ordainsari eta asistentzien araubidea.Talde politikoen diru-izendapenak:**

**Artículo 8: Asignaciones a los grupos políticos. Régimen retributivo y asistencial de las personas seleccionadas. Créditos de los grupos políticos:**

Udalbatza plenoak 2019ko Ekainaren 26an egindako bilkuran honako akordio hau hartu zuen:

El pleno municipal en sesión celebrada el 26 de junio de 2019, adoptó el siguiente acuerdo:

UDAL TALDE POLITIKO BAKOITZEKO:
hileko 542,50 €

POR CADA GRUPO POLÍTICO MUNICIPAL:
542,50€ mensuales.

TALDEKO IZENDAPENA ZINEGOTZI BAKOITZEKO: hileko 167,50€

POR CADA CONCEJAL:
167,50€ mensuales

**9.artikulua.- Hautatuen ordainsari eta asistentzien araubidea. talde politikoen diru-izendapenak.**

**Artículo 9.- Régimen de retribuciones y asistencias de elegidos. Retribuciones de los grupos políticos.**

***9.1.-*** *Dedikazioen erregimen ekonomikoa*

***9.1.-*** *Régimen económico de las dedicaciones*

**Alkatea:** Dedikazio esklusiboa, %100ekoa. Ordainsaria: Eusko Jaurlaritzaren Zuzendariari dagokiona 71.200,00€ urtean. Eraginkortasun-data: 2019ko ekainaren 15a.

**Zinegotziak:**

**1.- Ogasuna, Barne Antolakuntza, Sustapen Ekonomikoa, Parte-Hartzea eta HAZ Zinegotzi Delegatua:** %100eko dedikazioa eta 67.640,00€ urtean. Eraginkortasun-data: 2019ko ekainaren 15a.

**2.- Ingurumena, Landa Garapena, Obrak eta Zerbitzuetako Zinegotzi Delegatua:** %100eko dedikazioa eta 49.840,00€ urtean. Eraginkortasun-data: 2019ko ekainaren 27a.

**3.- Gizarte Zerbitzuak eta Integrazioa Zinegotzi Delegatua:** %55eko dedikazioa eta 35.244,00€ urtean. Eraginkortasun-data: baja eman eta hurrengo egunetik, uztailaren 2a baino lehen.

**4.- Berdintasuna eta Prebentzioa Zinegotzi Delegatua:** %20ko dedikazioa eta 12.816,00€ urtean. Delegazio Dekretu egunetik aurrera.

**5.- Festak eta Kirola Zinegotzi Delegatua***:* %25eko dedikazioa eta 16.020,00€ urtean.

**Eraginkortasun-data: 2019ko ekainaren 15a.**

**1.- Kultura eta Gazteria Zinegotzi Delegatua:** %40ko dedikazioa eta 25.632,00€ urtean. Eraginkortasuna-data: 2019ko ekainaren 15a.

**2.- Turismo eta Ondare Zinegotzi Delegatua:** %40ko dedikazioa eta 25.632,00 urtean. De

**Alcalde:** Dedicación exclusiva, de 100%. Retribución: el que corresponde a un Director del Gobierno Vasco .71.200,00€ anuales. Fecha de efectividad: 15 de junio de 2019.

**Concejales:**

**1.- Concejal Delegado de Hacienda, Organización interna, Desarrollo económico, Participación y SAC**: Dedicación exclusiva de 100% y 67.400,00 € anuales.Fecha de efectividad: 15 de junio de 2019.

**2.- Concejal Delegado de Medio Ambiente, Desarrollo Rural, Obras y Servicios:** 100% de dedicación y 49.840,00 €anuales. Fecha de efectividad:27 de junio de 2.019

**3.- Concejal Delegado de Servicios sociales e integración**: 55% de dedicación y 35.244,00 €anuales. Fecha de efectividad: desde el día siguiente a la baja, antes del 2 de julio

**4.- Concejal Delegado de Igualdad y prevención**: 20% de dedicación y 12.816,00 €anuales. A partir de la fecha de delegación

**5.- Concejal Delegado de Fiestas y Deportes**: 25% de dedicación y 16.020,00 €anuales.

**Fecha de efectividad:15 de junio de 2.019**

**1.- Concejal Delegado de Cultura y Juventud**: 40% de dedicación y 25.632,00 €anuales Fecha de efectividad:15 de junio de 2.019

**2.- Concejal Delegado de Turismo y Patrimonio**: 40% de dedicación y 25.632,00

legazio Dekretu egunetik aurrera.

**- Oposizioaren Zinegotzi Liberatua: Pertsona 1** %100eko dedikazioa 44.856,00€ urtean. Eraginkortasun-data: Udal taldeko bozeramaileak pertsonaren izena Udalean aurkezten duenaren hurrengo egunetik aurrera.
Ordainsariak Eusko Jaurlaritzaren Zuzendarien ordainsariekin bat eguneratuko dira.

€anuales A partir de la fecha de delegación.

-**Concejal liberado de la Oposición: 1 persona** 100% de dedicación 44.856,00€ anuales. Fecha de efectividad: a partir del día siguiente a la presentación del nombre de la persona por el portavoz del grupo municipal.

Las retribuciones serán actualizadas según las retribuciones de los Directores del Gobierno Vasco.

**9.2.-** *Asistentziengatiko dietak*

Dedikazio esklusiboa edo partziala ez duten zinegotziek, honako dieta hauek eskuratuko dituzte, Udalbatza Pleno, Tokiko Gobernu Batzar eta Batzorde Informatzaileetako bilkuretara joateagatik:

Plenoa: 70 €
Batzordeak eta Tokiko Gobernu Batzarra: 35 €
Batzordeko lehendakariak: 70 €

**9.2.-** *Dietas por asistencias*

Los concejales que no tienen dedicación exclusiva o parcial, recibirán las siguientes dietas por asistir a las sesiones del Ayuntamiento Pleno, Junta de Gobierno Local y Comisiones Informativas:

Plenos: 70 €
Comisiones y Junta de Gobierno Local: 35€
Presidente de Comisiones: 70€

**10. ARTIKULUA.- DIETA ETA JOAN-ETORRIEN KALTE-ORDAINAK**

***10.1*** *Lehendakariak eta gainerako hautetsiek:*

Lehendakariak eta gainerako hautetsiek, udal barrutitik kanpora egiten dituzten joan-etorriengatik, honako kalte-ordainen eskubidea izango dute:

a) Joan-etorri gastuak:

**ARTÍCULO 10.- INDEMNIZACIONES POR DIETAS, LOCOMOCIÓN Y TRASLADOS**

***10.1.*** *El presidente y demás cargos electos*

El Presidente y demás cargos electos, en sus desplazamientos oficiales fuera del término municipal, tendrán derecho a las siguientes indemnizaciones:

a) Gastos de locomoción:

* Joan-etorriak: 0,29 euro kilometroko, gehi bidesariak, gehi aparkalekuaren gastuak, beti ere gastua ordainagiriz zuritu eta gero.

* Si el desplazamiento se realiza en vehículo propio: 0,29 euros por kilómetro, más derechos de peaje y aparcamiento, previa justificación documental.

* Bestelakoetan: egindako gastuaren zenbatekoa, ordainagiriz zuritu eta gero.

* En otro caso el importe del gasto correspondiente, previa justificación documental.

**10.2** *Udal langileak*

**10.2.** *Los trabajadores municipales*

a) Joan-etorri gastuak:

a) Gastos de locomoción:

* Joan-etorriak: 0,29 euro kilometroko, gehi bidesariak, gehi aparkalekuaren gastuak, beti ere gastua ordainagiriz zuritu eta gero.

* Si el desplazamiento se realiza en vehículo propio: 0,29 euros por kilómetro, más derechos de peaje y aparcamiento, previa justificación documental.

* Bestelakoetan: egindako gastuaren zenbatekoa, ordainagiriz zuritu eta gero.

* En otro caso el importe del gasto correspondiente, previa justificación documental.

b).- Bidaiak eta dietak

b) Viajes y dietas

1.- OHIKOAK: Ohiko izaera honako hauek izango dute:

1.- ORDINARIOS: Tendrán carácter de ordinarios:

- Laneko ohiko zereginekin lotuta daudenak, eta
- 150 Km.ko radioan egiten direnak, gehieneko kilometrajea 300 Km.koa izango delarik

- Los relacionados con funciones habituales del puesto de trabajo, y
- Los que se realizan en un radio de 150 kms, con un kilometraje máximo de 300 kms.

2.- EZOHIKOAK: Izaera hau izango dute, honako kasuetan:

2.- EXTRAORDINARIOS: Tendrán dicho

| | |
|---|---|
| | carácter, en los siguientes casos: |
